


Diskoak

IKER BARANDIARAN



Discontinuidad.
Natural Project.
Autoekoizpena.
Iraupena: 53'11".
10 euro.

Lekuz kanpo, naturalenak

ANDOINGO talde honen izena aspalditik zen ezaguna niretzat, baina orain dela gutxi entzun nituen beraien kantak aurrenekoz. Banekien Get In musika eragilearekin batera ur handietan sartzeko saiakera egin zutela edo hori uste nuen, baina ezagutu ditudanean jakin dut ez dituztela inoiz epe luzeko aurreikuspenak egiten. Are gehiago, esperientzia hark erakutsi die hobe daudela beren kabuz, sinesten dutenaren alde bakarrik borrokatzen. Azalean gaztela-

niaz abestutako pop-rock malenkonia-tsua ageri bada ere, berehala antzeman daiteke intentsitate, gordintasun eta erritmo askoz aberatsagoekin maisutasunez jokatzeko dutela. Horrez gain, elektronikari ere etekina ateratzen diote, eta gai dira The Cure-n giroak uztartzeko indie-arekin, rockarekin, doinu industrialekin eta elektronika jostagariarekin.

www.myspace.com/naturalprojectmusic

Natural Project

«Beti sentitu gara lekuz kanpo, baina ez gaitu gehiegi arduratzen»

Zuen abestien helburua zein da, komunikatzea, sentiaraztea, entzulearengan eragitea, dantzaztea?

Abestien helburu nagusia sentimenduetan barrena bidaia-raztea da. Horretarako, ezinbestekoa da bidaia hori lehenik guk egitea. Gustatuko litzaiguke sentsazio hori entzuleekin konpartitzea, beraiek ere gure musika entzutean zerbait berezia senti dezaten. Eta horien artean, badira dantzarako aproposak ere izan daitezkeen kantak.

Zuen myspace-an diozue ez duzuela diskoetxeekin harremanik nahi. Zergatik?

Musika industrian gertatu ohi diren gorabeherak gertutik bizitzeko parada izan genuen. Musikaren gainetik beste hainbat interes egon ohi denez, guretzat garrantzizkoa dena bigarren mailan gelditzen zen. Orain disko hau gure kabuz egin dugu; gure esku egon dira lan honen prozesuaren nondik norako



guztiak. Ezin diogu inori erantzukizunik eskatu, gu geu izan garela erabateko arduradunak.

Gaztelaniaz abesten eta poperoegiak batzuentzat; musika komertziala entzuten dutenentzat gordinegiak; eta gainera Andoainen. Asko sinesten duzue egiten duzuen horretan...

Bai, arrazoia duzu. Beti sentitu gara lekuz kanpo. Hasieratik barneratuta daukagu hori eta ez gaitu gehiegi arduratzen. Hala ere, horrek ez du esan nahi jendeak egiten duguna baloratzen ez duenik. Arazoa da askotan kosta egiten dela gure musi-

ka jendearengana helaraztea, baina behin hori gertatu eta gero, jendeak asko baloratzen du egiten duguna; eta horrek izugarri poztzen gaitu, berez lorpen ikaragarria delako.

Bada helmugarik gaur egungo musika taldeentzat?

Gure kasuan helmuga eta irteerapuntua berdinak dira. Guri musika egitea eta musikaz gozatzea gustatzen zaigu. Asmo horrekin hasi ginen eta urte mordoak pasa bada ere, berdin-berdin jarraitzen dugu, musika egiten jarduteak ematen digun guztierengatik. ■